

Eroskik salgai jarritako milaka jantzi konfiskatu dituzte, faltsifikatuak direlako

Jantziak Indian eta Pakistanen eginak ziren, baina Kataluniako enpresa baten etiketa zeramaten

Erredakzioa / Bilbo

Poliziak Eroskiren 41 hipermerkatu arakatu zituen atzo, Hego Euskal Herriko eta Espainiako 21 hiritan. Arakaketaren ondorioz, delitu ekonomikoaren aurkako bigradak 16.219 jantzi faltsu (pijamak eta kamisoiak) konfiskatu zituen. Asian egin-dako jantzi faltsu horiek Roumi Import enpresak inportatu zituen kooperatibarentzat

EROSKI kooperatibaren hipermerkatuetan salgai jarritako milaka jantzi konfiskatu zituen atzo poliziak, faltsifikatuak zirelako. Poliziak guztira 41 hipermerkatu arakatu zituen Hego Euskal Herriko eta Espainiako Estatu-tuko 21 hirirutan.

Poliziako delitu ekonomikoaren aurkako brigadatik jakinarazi dutenez, jantzi horiek Indian eta Pakistanen egindakoak dira, eta Roumi Import enpresak inportatu zituen, Eroskik bere hipermerkatuetan saltzeko.

Hala ere, jantzi horiek etiketa faltsuekin omen zeuden salgai, Kataluniako Ametller markako etiketekin hain zuzen. Marka honek ospe handia dauka jantzien sektorean, batez ere lentzeriako artikuluetan.

MCCko kooperatibak berehala ukatu du bahitutako jantziak faltsifikatuak direla, eta akatsa jantzi hauen «etiketako informazio okerrari» egotzi die.

16.219 jantzi

Poliziek guztira 16.219 jantzi konfiskatu zituzten atzo miatutako 41 hipermerkatuetan, eta saltokietako gerente nahiz arduradunei deklaratzera dei egin zien. Jantzi hauetatik gehienak gizonezkoen eta emakumezkoen pijamak, kamisoiak eta lentzeriako jakziak dira.

Arakatutako Eroski hipermerkatuetatik zortzi Bilbokoak dira, sei Donostikoak, lau Valentziakoak eta bina Iruñea, Gasteiz, Bartzelona, Madril, Alakant eta Murtziakoak. Horiez gainera, Espainiako beste 11 hirirako hipermerkatuak ere miatu dituzte.

Polizien arabera, Eroskik hainbat jantzi eskatu zion iaz



ANDER GILLENEA

Donostiako Garbera merkatal zentruan Eroskik duen dendaren jantzien saila.

«Ez da faltsifikazioa, informazioa okerra da»

EROSKI banaketa kooperatibako prentsa arduradunarekin harremanetan jartzerik ez zegoen atzo. Hala ere, Espainiako Poliziak atzemandako jantzien gainean eta jantzietako guztiaren azalpenak eman zituen MCC kooperatiba korporazioko taldeak. Azalpenak, baina, laburrak bezain xumeak izan ziren. Hedabideetara igorritako agiri xume batean Eroski

kooperatibak ziurtatu duenez, poliziak hipermerkatuetatik eramandako jantziak -pijamak eta kamisoiak besterik ez- «ez dira inondik inora ere faltsifikatuak». Arazoa zera da, jantziek «egileari buruzko informazio okerra» zeramaten etiketetan.

MCCko kooperatibaren arabera, konfiskatutako jantzien informazio oker horrek «ez dio eragiten ez produktuaren ka-

litateari ezta markari ere».

Bestalde, operazioan izan duen jarraitaren gaineko azalpenak ere eman ditu Eroskik, eta argi utzi nahi izan du agente judizialei lagundu egin diela salatutako produktuak hipermerkatuetatik erretiratzeko, eta «arazo hau lehenbailehen konpon dadin, beharrezko dokumentazioa eskuragarri jarri du».

Eroski Euskal Herriko banaketa enpresa garrantzitsua da. Espainian ere lehena da salmenta eta saltoki kopurua araberako sailkapenean.

Kontsumitzaileen eskubideak eta hari zuzendutako informazioa tentu handiz zaintzen ditu Eroskik. Berezoentzako kontsumo ikastaroak ere antolatu ohi ditu Eroskik, MCCko banaketa kooperatibak.

karen eskubideen jabe da eta, dirudienez, enpresako arduradunak halako batean ohartu ziren hipermerkatuetan salgai zeuden jantzi asko, bere marka eraman arren, ez zirela enpresak eginak.

Ondoren, ikerketa egiten ari diren agenteek egiaztatu zuten jantzi horiek Asian eginak zirela, Indian eta Pakistanen hain zuzen, eta Roumi Import enpresak inportatu zituela.

Ikerketaren arabera, inportazio enpresa honek guztira 47.235 jantzi eskatu zituen Asiako bi lurralde hauetako batean. Roumi Import-ek, gainera, jantziek zein motako etiketa eduki behar zuten zehaztu omen zien atzerriko ekoizleei.

Eroskiren hipermerkatuetako arduradunek bezalaxe, inportazio enpresako arduradunek dagoeneko deklarazioa egin dute polizien aurrean.

Delitu ekonomikoaren aurkako brigada konfiskatutako jantzien analisia egiten ari da, faltsifikazioak Ametller enpresari zenbateko kaltea eragin dion zehaztu ahal izateko. Kaltea ehundaka milioi pezetakoa izan litekeela iritziz diote.

■ ■ ■ Eroskik hainbat jantzi eskatu zion iaz Kataluniako Ametller-Generos de Punto enpresari, udaberriko eta udako denboraldirako. Jantzi hauek bere hipermerkatuetan eskusiban saltzeko eskatu omen zizkion.

Kataluniako Ametller-Generos de Punto enpresari, udaberriko eta udako denboral-

dirako. Jantzi hauek bere hipermerkatuetan eskusiban saltzeko eskatu omen

zituen Elorrioren egoitza nagusia duen kooperatibak.

Ametller enpresa bere eskubideen jabe da

Jantzi hauen etiketetan «Ametller-ek eginda» jarri behar zuen, bai jantziaren barrukaldean jositako etiketetan, baita kanpoaldeko kartoizko etiketetan ere.

Ametller enpresa bere mar-